

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **BEASAINGO LARUNBATEKO AZOKAN ZUZENEO KONTSUMOA SUSTATZEKO ETA BEZEROAK ERAKARTZEKO BONUAK SALTZEKO ETA EKOIZLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Beasaingo larunbateko azokan zuzeneko kontsumoa sustatzeko eta bezeroak erakartzeko bonuak saltzeko eta ekoizleei dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

Azokako bonu-programari atxiki ahalko zaizkio Beasaingo larunbateko azokako postuetako pertsona fisiko edo juridikoak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Larunbateko azokan parte hartzea (udal zerbitzuek egiaztatuko dute bertaratzea).
2. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
3. Udal Ogasunarekin eta Udalarekin zorrik ez izatea.
4. Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Bonuek 20€-ko balioa izango dute guztira, eta 5 €-ko 4 zatitan banatuta egongo dira, errazago erabiltzeko.

Herritarrak 10€ ordainduko ditu eskudirutan, eta 20€-ko balioa duen bonu bat eskuratuko du.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Ekoizleek eskabideak aurkezteko izango duten epea eta modua ondorengoak izango da:

-Noiz: 2024ko urtarrilean egingo den lehenengo azoka egunetik otsailaren 1era arte.

-Modua: Atxikitzeko eskaerak iGunean aurrez aurre edo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta daitezke.

